



Gipuzkoako Alzheimerdunen eta bestelako dementziadunen Senitartekoen eta lagunen Elkarreak ( AFAGI ) OIARTZUNgo Udalari ondorengo deklarazioarekin bat egitea eskatzen dio.

## INSTITUZIO-DEKLARAZIOA

Jakin badakigu Alzheimerra dementzien artean nagusia dela, gaur egun, dementzia mota honen eragina 3,5 milioi pertsonak pairatzen dutela estatu mailan, gaixoak eta hauek zaindu behar dituzten senideak kontuan hartuta.

Jakin badakigu Alzheimerra osasun eta gizarte mailan ematen den arazoa dela, familia delarik zama handiena bere gain hartzen duena.

Jakin badakigu oraindik ez dagoela ez tratamendu eraginkorrik ezta prebentzio sistema egokirik ere gaixotasun larri honen ondorioak mugatzeko.

Jakin badakigu hurrego hogeitun urtetan gaixotasuna gailenduko dela gaixo kopurua bikoiztuz, batez ere, biztanleriaren bizitza itxaropenaren luzapena dela eta.

Jakin badakigu familia batean Alzheimerrek sortu ditzakeen zuzeneko zein zeharkako gastuak 30.000 eurotik gorakoak izan daitezkeela.

Jakin badakigu gaixo eta senideen beharrei aurre egiteko eskura dauden osasun eta gizarte baliabideak eskasak direla.

Jakin badakigu, Europako Legebiltzarrak, Europako Komisioak eta duela gutxi Munduko Osasun Erakundeak gomendio ezberdinak luzatu dituzten arren, ez daukagula gaixotasun honen kalteei aurre egiteko plan zehatzik.

Biztanleria zahartzen ari dela eta honek dementziaren bat ( Alzheimer motakoa batez ere) jasateko dakarren arriskuaren jakitun izanik.

OIARTZUNgo Udalak, arazo larri honekiko duen kezka adierazi nahi du **“Alzheimerrekiko Hiri Solidarioa”** izatea erabakiz.

Honela, ekimen instituzional honekin, OIARTZUNgo Udalak beste udalerrri batzuentzat adibide izan nahi du eta bide batez, osasun eta gizarte arloetako arazo larri honen inguruko sentsibilizazioa eta gizartearen zein instituzio eta politikarien kontzientziazioa bultzatu.

“Alzheimerrekiko Hiri Solidario” bilakatuz, OIARTZUNgo Udalak Alzheimerri buruzko Aliantzak bultzatu duen egitasmoaren alde egiten du. Egitasmo honek **Alzheimerren inguruko estatu-mailako politika** abian jartzea aldarrikatzen du.

.....n, .....ko .....ren .....n

( Proiektuaren informazio gehiago: [www.lamemoriaeselcamino.com](http://www.lamemoriaeselcamino.com) )